

STRADIVARIUS BIOLINA DESAGERTUTA

Bazen behin Bergara izeneko herri bat. Bergara, herri oso polita zen eta jendea lasai bizi zen, ez ziren arazo asko egoten eta musika oso baloratuta zegoen. Bertan orkesta bat zegoen, oso profesionala eta ona zen eta handik bi egunetara orkesten lehiaketa batean partehartzekoak ziren.

Lehiaketan herriko pertsona onenak lehiatzen ziren. Horregatik, Bergarako orkestakoek ensaio orokorra zuten frontoian.

Bergarako orkestako lehenengo biolinak stradivarius biolin bat zuen, horrelako biolinek 20.000 €tik gora balio dute.

Ensaioa bukatzean bat-batean stradivarius biolina desgertu egin zen, ez zuten topatzen, denak aztoratu ziren baina stradivariusaren jabeak ideia bat eduki zuen: espia bat kontratatzea.

Espiak ile motza zuen, altua, elegantea, azkarra, eta serioa zen. Bera oso diskretua zen, inork ez zion berari begiratzen, stradivariusaren jabeak ez zion inori kontatu espia bat kontratatu zuela, bestela, ez zuen zentzurik edukiko.

Espiak hasieran, lehiaketako beste pertsona bat izango zela pentsatu zuen, baina, zertarako lapurtu stradivarius biolin bat lehiaketarako? Izan ere, ez zuen zentzurik edukiko, ikusle denak segituan enziarelako bera izan zela, Orduan zertarako lapurtu? dirua lortzeko? Espia oso nahastuta zegoen, baina, orduan pentsatu zuen orkestako norbait izan behar zela, izan ere entseguan orkestako jendea bakarrik zegoen, dena oso arraroa zen.

Bat batean espiari ideia bat bururatu zitzaion: orkestako zuzendariaren laguna bihurtzea informazio lortzen saiatzeko. Zuzendariaren laguna bihurtzea zaila zen, oso serioa bait zen, baina espiak plan bat zuen: Lehenengo, zuzendariari kartera lapurtzea. Gero, kartera topatzea (boltzikotik bueltatzea) Bukatzeko, bere etxera eramango zuen kafe bat hartzera eta eta lapurketari buruz galdetuko zion.

Dena ondo atera zen, dena berak pentsatzen zuen bezala gertatu zen. Etxean zeudela zerbait arraroa ikusi zuen, zuzendariaren aita eta Stradivariusaren sortzailea argazki batean zeuden, espiak argazkiari buruz galdetu zion:

- Zergatik daude zure aita eta stradivarius jauna argazki batean? Zuzendaria uraduri jarri zen, aurpegia ahaldatu zitzaion.
- Zerbait gertatzen zaizu? aurpegi txarra duzu- esan zion espiak, zuzendariak ezin izan zion negarrari eutsi eta dena kontatu zion.
- Nire aita lutierra zen, Alemanian egin zituen biolin lutierra izateko

ikasketak, munduko onenekin. Garai hartan ezagutu zuen Stradivarius jaun madarikatu hori- esan zuen zuzendariak.

- Zergatik gorrotatzen duzu stradivarius ? pertsona errespetagarria zirudien, famatua da mundu osoan eta bere biolinak munduko onenak dira-
- Munduko onenak dira?!-esan zuen zuzendariak amorruari ezin eutsiz.
- Barkatu, ez zintudan mindu nahi- erantzun zion espiak.
- Stradivarius jaunak nire aitari lapurtu zizkion biolin horiek egiteko planoak, egur motak... den-dena !
- Ez naiz lasai geldituko munduko Stradivarius gustiak desagertarazi arte! Gaur bertan nire orkestako lehen biolinari lapurtu diot Bergaran zegoen azken biolina. Badakit gaizki dagoela baina nire aitaren gatik egin dut.

Ezizena : Martxi